



**Euskaraz bizi nahi dut!.-** Lasarte-Oriako euskaraz bizi nahi duela esan zuen ozen larunbata arratsaldean. Euskotreneko geltokitik abiatuta, jai-giroan bi kilometro eta erdiko martxa jendetsu, koloretsu eta alaia egin zuten ehunka lagunek herriko kaleetan barrena. Kontseilua, AEK, Udala, Ttakun, Ostadar eta herriko ikastetxeen artean antolatutako martxaren bitartez euskararen erabilera bultzatu eta indartu beharra dagoela aldarrikatu zuten lasarteoriatarrek. Bestalde, martxa bukatzean bost gailu zozketatu zituzten goizean Okendo plazan kamiseta erosi zutenen artean: DVD irakurgailua, etxea garbitzeko xurgagailua, motxila, kafe-makina eta jaberik agertu ez zaion sukaldeko errobota. Antolatzaileek arren eskatu diote 31 zenbakia duen boletoaren jabeari AEK Munterri euskaltegitik pasatzeko saria eman diezaioten. Lasarte-Oriako ere, euskaraz bizi nahi du.

### 3 GREBA

#### Deialdiarekin bat egitera deitu dute sindikatuek

Eskualdeko ELA eta LABeko ordezkariak agerraldia egin zuten ostiralean herritarrei asteazkeneko grebarekin bat egiteko eskatuz. Lasarte-Oriako ezker abertzaleak ekintzak antolatu ditu egunotan eta Askatasuna plazan akanpada egiten ari dira hainbat gazte bizi duten prekarietate egoera salatuz.



### 4 ARRIESKALLETA

#### “Luxuzko” bertso afaria prestatu dute urriaren 5erako

“Hitzarekin jolasean musikaren koloretan”, bapateko bertsoak zuzeneko musikarekin lagunduta. Saio erakargarria antolatu du aurten ere Arrieskalleta elkarteak urriaren 5erako. Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak arituko dira Eñaut Elorrieta abeslariaren laguntzarekin.

### 5 ELKARRIZKERA

#### Gorka Alvarez entrenatzailearekin futbolaz hizketan

Kirolzale amorratua da Gorka Alvarez, Añorga KKE-ko entrenatzailea. Futbolagatik sentitzen duen pasioa entrenatzen dituen taldeetan islatzen saiatzen da, eta lortzen duela esan daiteke, aurreko denboraldian nesken Euskal Kopa irabazi baitzuen Athletic handia mendean hartuta.

**ALCAR VENTANAS** Zuregandik hurbil

Etorri gure denda berrira, Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

GUARDIAN SUN, KÖMMERLING, Bandalux, CORTIZO

Tel.: 943 37 78 68 tienda@ventanasalcar.com www.ventanasalcar.com

ERAKUSKETA Plaza Oriamendi, 2 - (Lehenko Doble J) TALLERRA Ibaiondo, 4 erdietsotua 5-A Lasarte-Oria Gipuzkoa

**ELEKTRIZITATEA ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

## Adituak dio



## Mikel Urruzola

## Artelatz ingurugiro zerbitzuak

Zortzi urte nituela joan nintzen lehen aldiz Hernanira Buenavista baseritik, bakar-bakarrik, ferian landareak erostera. Honela esan zidan aitak: Nik astoa prestatuko dizut eta zu gainean jarri. Astoak bere bideari jarraituko dio Hernaniraino. Etxe zahar batzuetatik pasako da eta leiho zahar baten ondoan astoa gelditu egingo da: orduan jaitsi eta han lotu. Gero, oinez jarraitu eta azoka topatuko duzu; han egongo den andre handi bati nor zaren esan eta hark emango dizkizu landareak. Esan bezela, landareak hartu, ordaindu eta berriro asto gainean eserita baserriraino eraman ninduen."

Duela 15 urte Gregoria Sorrondegi zanak kontatu zigun pasadizo hori, 1923. urtekoa da (Lasarte-Oria gure herria ikastunitatean). Astoak autoak baino ugariago ziren garai hartan norik pentsatuko zuten gaur Lasarte-Oria astoak desagertzeaz eta 8.343 automobil, 1.326 motor, 435 kamioi... egongo zirela?

Eta zertarako horrenbeste? Besteak beste, auzotik erdigunera autoz joateko, aparkamendu bila bueltaka-bueltaka trafikoa saturatzeko; oinezkoen pasabide eta espaloietan uzteko, lanerako joan-etorrietan (auto bakoitzean bidaiari bakarrarekin) errepideak kotxez betetzeko...

Autorik gabeko egunak eta Mugikortasun Asteak antolatzea onuragarria delakoan nago, gaiaren inguruan hausnartzen eta sentibilizatzeko laguntzen baitute. Gure osasunak eta umoreak hobera egingo lukete bidegorritik barrena bizikletaz gehiago ibiliko bagina, oinez egingo bagenitu ahalik eta desplazamendu gehien, garraio publikoa erabiliaz... Ezin amaitu Muittu Manttangorri ongi etorria eman gabe; zorionak sustatzaileei eta urte askoan izan dezagula!

## Bizikletak ere negurako dira

Europako Mugikortasun iraunkorraren astea ospatu zen aurrekoan. Lasarte-Oriako udalak bat egin zuen honekin eta bi egunetarako ekintza bereziak antolatu zituen. Azkenean eguraldi txarra tarteko, ostegun arratsaldean egin ziren guztiak. Horien artean bizikleta festa.

Herriko bidegorrien inguruan askotan idatzi dugu Txintxarrin. Erabiltzaile askorentzat ez dira nahikoak eta Donostiarekin lotura bereziki faltan botatzen da. Hala ere geroz eta gehiago dira bizikleta hartu eta bere eguneroko bizitzan autoa edo autobusa garraibide garbi honengatik aldatzen dutenak. Bizikleta festa hauek umeak animatzen ditu honen erabileran eta heziketan datza, zalantzarik gabe, autoa baztertu eta gurean bizikletaren erabilera errotu dadin.

Bizikletak udarako omen dira baina neguan ere hartu eta erosketak egiteko edota lanera joateko erabiltzea litzateke udal gehienek sustatu nahi luketena. Arazoa da udalek nahi bai baina herrietako kaleak ez daudela behar bezala moldatuta txirindularientzat.

Hainbat zinegotziki aparkaleku gehiago sortzeko proposamenak egiten dituzte baina noizko bidegorri sare egokia? edota Europako beste hiriburuak eredu hartuta, auto eta txirinduren elkarbizitza sustatzeko ekimen edo neurri eraginkorrrak. Oinezkoek espaloia txirindekin elkarbanatu behar dute baina errepideetan jaun ta jabe dira autoak. Mugikortasun iraunkorra sustatzea ondo dago baina tresnak ere eman behar dira.

## Hitz eta pitz

## Herrian bizikletan ibiltzeko ohiturarik ba al daukazu?



## Bego Lumbresas

Gustukoa dut bizikleta, baina ez da erraza. Donostia ondo dago, baina hemendik ez dugu abiatzerik. Pena da. Bidegorria baldin bagenu oso polita izango litzateke. Getaria-Zumaiara joateko ere trena hartu behar, baina gero han bidegorri eta ibilbide politik daude han. Plaza-olako bide berdera iristeko ere, Urnietaraino obra eta kamioiz betetako errepide batetik joan behar da.



## Amaia eta Estibxu Olasagasti, Maddi Galbete

Oso gutxi ibiltzen gara, ia batere ez. Udan planen bat ateratzen bada gustura ibiltzen gara, baina urtean zehar gu behintzat oso gutxi. Bidegorriak balego agian gehiago ibiliko ginagake, beti planteatu izan dugu aukera hori. Gustatuko litzaugike, baina alferkeria ere izaten da. Behin bizikleta edukita ez dago gainera ordaindu beharrik. Ohiturak aldatzea da.



## Joakin Peña

Batzuetan ibiltzen gara bizikletan etxeok, bidegorriak asko gustatzen zaizkigu, oso ondo daude, eta, nik uste dut, Donostiara joateko bidegorria behar duela Lasarte-Oriak. Lehentasun bat izan beharko litzateke Añorgarekin lotzea, umekin joateko. Etxean denok daukagu bizikleta, "topo"an joaten gara Añorgara, baina nahiago dugu hemendik abiatzea.



## Jesus Castro

Ibiltzen naiz bizikletan, mendi aldera jotzen dut batez ere, errepide handietan ez dago eta ibiltzerik. Mendiko bizikleta daukat eta mendian edo auzoetako bideetan ibiltzen naiz, Santuenea, Aginaga, Igeldo... trafikorik ez dabilen bidetan. Donostiara joateko bidegorria ondo legoke, aurreikusita dagoela dirudi. Oraingoz Errekaleraino da eta dirua dagoenean iritsiko da hona.



Txirindulari lasterketa herriko erdigunetik 1950. urtean. GureGipuzkoa

## Iruditan

## Bizikleta ikuskizun

Egun bizikletaren erabilera bultzatzen da herritarren artean kaleetatik kotxe kopurua murriztu eta ingurugiroa zaintzeko tresna baliagarri moduan. Egun arrunta da bizikleta edukitzea baina duela ez hainbeste luxu bat zen Agirre Sorondok bere liburtuetan azpimarratu moduan. Haurren artean ez zen ohikoa bizikleta edukitzea 50. hamarkadan, garestiak ziren eta helduen artean ikusten ziren lanera joateko beharrezkoak zirelako edukitzen ziren. Nagusiki garai honetan kirol ikuskizuna zen txirindularitza eta San Pedroan egin ohi zen lasterketa. Irudian 1950. urteko lasterketa.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

GREBA

# Jarraipen zabala aurreikusten dute sindikatuek

ELA eta LABek agerraldia egin zuten ostiralean Hernanin greba eguneko ekintzen berri emateko

ELA eta LAB sindikatueta-ko eskualdeko ordezkariak agerraldia egin zuten ostiralean herritarrek asteazkeneko greba deialdiarekin bat egiteko deia luzatuz. Lasarte-Orian ezker abertzaleak hainbat ekintza antolatu ditu egunotan eta Antonio Merce-ro plazan akanpada egin dute hainbat gaztek bizi duten prekarietate egoera salatuz.



Ostiralean mosaikoa egin zuten Okendo plazan.

Herritarrek irailaren 26ko greba orokorrean parte hartzea deitu dituzte, Buruntzaldeko ELA eta LAB sindikatuek ostiralean Hernanin egindako agerraldian.

Honetan sindikatueta-ko ordezkariak asteazkeneko deitutako 24 orduko lan uzteak, jarraipen zabala izango duela adierazi zuten: "Aurreikusia dugu greba egunean jende asko aterako dela kalera. Eskualdea eta Euskal Herria nahiko geldituta egongo da". Hainbat enpresetan dagoeneko batzarrak burutu dituztela aipatu zuten eta batean baino gehiagotan, langileen gehiengoak greba egunarekin bat egin du.

Sindikatuak greba egunean hainbat mobilizazio deitu dituzte. Lehena, herrialde mailako manifestazioa Donostian egingo dena. Eskualdeko herritarrek, goizeko 11:30etarako Anoetara agertzera deitzen dituzte. Arratsaldean berriz, eskualde mailako manifestazioak burutuko dira Andoainean, Hernanin, eta Lasarte-Orian, 18:00etatik aurrera.

Eskubide laboral eta sozialaren alde deitu dute irailaren 26ko greba orokorra. "Rajoyren gobernuak inposatu nahi dituen murrizketa eta neurri basatien artean gure eskubide sozial eta laboralen lapurreta berri bat da: prestazioak

murrizten dira eta langabezia-ko laguntzak kendu nahi dituzte, BEZa igotzen dute, sektore publikoa pribatizatu, osasungintzan berrordainketa ezarri, enplegua suntsitu, menpekotasuna duten pertsonak bertan behera utzi..." diote sindikatuek euren aldarrikapenean. Honen aurrean grebarekin bat egin eta manifestaldietan parte hartzeko deia egin dute.

## Herriko ezker abertzalea

Bestalde Lasarte-Oriako ezker abertzaleak "Euskal gehiengo sindikalak hainbat eragile sozialekin batera asteazkeneko deitutako grebaren harira, gizartearen eta herriaren gaur egungo egoera aztertzeko"

hainbat ekintza antolatu ditu. Ostiralean, Okendo plazan mosaiko erraldoia egin zuten.

Gaur eta bihar mahai inguruak antolatu dituzte Okendon bertan. Hezkuntza murrizketak eta herriko egoera sozioekonomikoari buruz hitz egingo da gaur. Bihar berriz, astearte, inguruko enpresen egoeraren inguruan mintzatuko dira eta bakoitzak bere esperientzia kontatzeko aukera izango du honetan. Gainera, bideo emanaldia izango da plazan bertan, Naomi Klein-en "La Toma" filma eskainiko da.

## Greba eguna

Asteazkenean, greba egunean, goizeko 8:00etan kotxe karabana antolatu da.

Jarraian, 10:00etan, "Bankeak errudun" lelopean elkarretaratzea egingo da Okendo plazan eta 12:00etan berriz, Donostiako manifestazioan parte hartzeko deia egin da.

Arratsaldean, 18:00etan Lasarte-Oriako kaleetan barrena egingo da manifestazioa eta honetan parte hartzeko deialdia luzatzen dute ezker abertzaleak.

## Gazteak akanpatuta

Lasarte-Oriako gazte talde bat kanpaldia egin ari da Askatasuna Plazan. Ostiralean hasi eta greba egunerako arte luzatuko den ekintza honekin gazteek bizi duten prekarietate egoerak salatu eta grebarekin bat egin dutela erakutsarazi nahi izan dute.

Gainera, asanblada irekiak antolatu dituzte asteazkeneko bitartean egunero 20:00etan, euren kezka eta egonezina azaltzeko. Ostiralean bertan, Jon Martin herriko LABeko ordezkariak "prekarietateak itotzen gaitu" hitzaldia eskaini zuten Elizatze plazan, 45 entzuleren aurrean.

Gaur, Josebe Iturrioz ekin-tzaile feminista eta Irungo berdintasun teknikaria denak hitzaldia emango du Askatasuna plazako gunean 21:00ak aldera afari-tertulia batean.

## Manttangorri zerbitzuan aldaketak

Udalak jakitera eman duenez Manttangorri herrian zenbait egunez zerbitzua eman ondoren, "ohartu gara beharrezkoa dela doiketatxo batzuk egitea ordutegiak bete ahal izateko eta lehenagotik erabaki ziren geraleku batzuk tokiz aldatuko dira".

Orain arte, herri arteko autobusaren geralekutik abiatzen zen Manttangorri autobus baina udalak egingo duen lehenbiziko aldaketa Antxisu bilararen barruan autobusaren geraleku bat prestatzea izango da.

Hala ere, aldaketa nabarmenak Zabaleta aldean egingo direla aurreratu dute. Gaur egun, autobusa Pinutegi kaletik igotzen da eta Buenos Aires aldatatik jaitsi. Hemen-dik aurrera ordea, Buenos Aires aldatatik igo eta Pinutegi kaletik jaitsiko da. Aldaketa honekin orain arteko geralekuak deuseztatu eta bidearen beste aldean, parean, izango dira berriak. Tellerigaineko 1.



Manttangorri bere lehen bi asteak egin ditu martxan.

zenbakiko geralekua Zabaleta Plazan dagoen autobus-geralekura aldatuko da eta Goiegi urbanizazioko zuzengunean dagoena Goiegiko biribilgunera.

## Ordutegian aldaketak

Abiatzeko orduak dagokienez, 8:45ean zegoen zerbitzua aldatu da eta 5 minutu aurreratu. Aldaketa horrekin, Pinutegiko bizilagunei eman nahi zaie zerbitzua, eskolako auto-

busik gabe geratu direlako. Gainerako abiatze-orduek ez dute aldaketarik izango udalak jakitera eman duenez baina kontutan izan beharko da tarteko orduek ibilbidean egin diren aldaketak tarteko nolabaiteko aldaketa jasango dutela. Bukatzeko udalak gogoratu nahi die Zelaialdeko bizilagunei beren kalean gelditzea aukera dutela, "betiere txoferrari jakinarazten badiote".

## ZABORRAK

### Bilketa sistema berria industrialdetan

San Marko Mankomunitateak industria eta enpresa poligonoetan nahiz parke teknologikoetan jarriko duen bilketa zerbitzu berriari buruzko bilera informatzaileak antolatu ditu. Lasarte-Orian gaur 13:00etan izango da bilera Manuel Lekuona kultur-etxean.

Hitzaldi hauetan, Ainhoa Intxaurrendieta San Marko Mankomunitateko lehendakaria edo Isidro Salaberria mankomunitateko zerbitzu teknikaria izango dira. Zerbitzuaren berrikuntza nagusia hondakinak 14 multzotan jasotzean datza. Mankomunitateak ingurumenarekin duen konpromisoari eutsiz, birziklagarriak diren ahalik eta hondakin gehienak gaika bildu nahi ditu hauen lehengaiak berreskuratu ahal izateko. Gainera, mankomunitateak jakitera eman duenez, ekimen honek, hainbat enpresetatik egindako eskaera bati erantzuten dio eta pausu hau hasieratik erakundeak izan duen kudeaketa jasangarriaren ondorioa da.

## MUSIKA

### LasarTEK Electronic gauan Abend-en



Sergio Cruz, Mora GS eta Daniel Knob dj-ek ostiral gaua girotu zuten.

Imanol Rekondo, Iñaki Arruti, JoxeKruz Labaka eta Unai Muñoa Bertso afariaren antolatzaileak

# Bertsoak Arrieskalletan musikaz edertuta

- ▶ Urriaren 5ean gaueko 21:00etan hasita bertso afaria antolatu dute Arrieskalleta elkarteak
- ▶ Bat-batean arituko dira Uxue Alberdi eta Jon Maia, Eñaut Elorrieta abeslariarekin batera

“Hitzarekin jolasean musikaren koloretan”, bapateko bertsoak zuzeneko musikarekin lagunduta. Saio erakargarria antolatu du aurten ere Arrieskalleta elkarteak urriaren 5eko afalostera. Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak arituko dira bertso afarian, Eñaut Elorrieta Ken Zazpiko abeslariaren laguntzarekin. Afarira joateko ez da elkarteko bazkide izan beharrik, sarrerak Jalgin daude salgai 25 eurotan.



Imanol Rekondo, JoxeKruz Labaka, Unai Muñoa eta Iñaki Arruti antolatzaileak Arrieskalleta elkarteak. Eurekin aritzen den Iñaki Izquierdo falta da.

Jon ALTUNA IZA

Arrieskalleta elkarteak 2007an sortu eta hurrengo udaberrietik, bertso afaria antolatu dute urtero. Bost lagun aritzen dira horretan, elkarteko Iñaki Arruti, Iñaki Izquierdo eta Imanol Rekondo eta “Earra!” Lasarte-Oriako Bertso Eskolako JoxeKruz Labaka eta Unai Muñoa, ahal bada zerbait berezi eta erakargarria sortu nahirik.

Antolatzaileetako laurekin elkartu gara, aurreko bost urtetako bertso afarien balantzea egin eta aurtengoaz aritzeko. “Elkartearen helburuetan dago euskara eta euskal kultura bultzatzea, eta hemen antzerki emanaldiak egitea zailagoa denez, eta segur aski gure zaletasunak bultzatuta, mahaiaren inguruko formatu horretan, bertso afaria antolatzen dugun” azaldu digu Iñaki Arrutik.

Zerbait berezia antolatzen saiatzen dira, eta bertso afaria urtean zehar Bertso Eskolak antolatzen dituen beste saioen artean txertatzen. Normalean Udaberriko bertso saioaren aurretik egiten dute.

## Bost urte, bost saio

Lehenengoan, 2008an, librea kantatu zuten Jesusmari Irazu eta Beñat Gaztelumendik, hain juxtu, orduan bere lehenengo Gipuzkoako txapelketan txapeldun orde izan zen 20 urteko aňorgatarrak.

2009an Lasarte-Oriako bertsolariak Andoni Egaña orduko tetraxapeldunaren aurka jarri zituzten norgehiagoka: “Ezetz bosgarren txapela” bota zioten erronka Egañari, Euskal Herriko txapelketaren atarian.

2010ean esperimentu txiki bat egin zuten Uxue Alberdi

eta Maialen Lujanbio bertsolariak eta Eñaut Elorrieta Ken Zazpiko abeslaria saio batean elkartzuz, 2011n Andoni Egaña eta Xabier Amuritz txapeldun beteranoak aritu ziren eta aurten berriro 2010eko formula errepikatuko dute, bi bertsolari eta Eñaut Elorrieta abeslaria.

Orduan saioa ondo ateraz eta “segururik” joko dute antolatzaileek. “Jendea sartu ezinik geratu zen orduan, izen handiak dira eta toki txikia” esan digu Arrutik.

## Esperientzia

Antolatzaileek badute esperientzia, Imanol Rekondok azaldu digunez, aurretik San Pedroetako saioa eta Goiegiko afaria antolatzen zituzten, eta Itakunek ardura hori hartu zuzenean, Arrieskalleta elkarte sortu berriari antolatzen hasi ziren. Beraz, ideia elkartearena zen eta Bertso Eskolako kideen laguntza izan dute.

Unai Muñoa bertsolariaren ustez, Bertso Eskolak pozik hartu zuen proposamena, “hain juxtu horretan geneukan eta hutsunerik handienetarikoa, Goiegiko bertso afariak antolatzen zirenetik. Saio pila bat eta mila esperimentu egin ditugu, herriko txapelketak, saioak tabernetan, GRak... baina hain juxtu hau, bertso afaria, galduta geneukan eta pentsa bertsolari-tzan zein garrantzitsua den”.

Afariak bi parte ditu gastronomikoa eta ludikoa, bertsolari onak ekartzen eta saio berezia antolatzen saiatzen dira, baina baita afari goxo bat prestatzen ere. “Ahal duguna egiten dugun” dio Imanol Rekondo sukaldari aritzen denak. Dena



Aurten 2010eko itxura hartuko du saioak. Maiak ordezkatuko du Maialen.

den, menua erakargarria da zalantzarik gabe: txerrikoa, entsalada epela, saiheki konfitatua, txirikorda izozkiarekin, kafea eta pattarra. Txartelak Jalgin erosi daitezke 25 euroan.

## Luxua

60 leku daude eta normalean gai jartzaile aritzen den Unai Muñoak argi dauka, “aurten bizkor ez dabilena bertso saio-tiko sarrerarik gabe geratuko da ziur”. Orain bi urte ere berdina gertatu zen, Eñaut Elorrieta ez da eta normalean horrelako saioetan ikusterik izaten.

Antolatzaileen ustez mauka da, 60 pertsonarentzat soilik egindako saio-kantaldi bitxia Arrieskalletako sukaldariak prestatutako afari bereziarekin batera 25 eurotan gozatzeko aukera. “Saio erabat eskuliboa da, hemen ikusiko dena ez da beste inon ikusterik izango” esan digu Unai Muñoak eta Iñaki Arrutik ere bat egiten du iritzi horrekin. Bere ustez, zir-

kuitutik kanpo dagoen eskaintza bat da.

## Hitza eta musika

Unai Muñoa berak azaldu digu, azkenaldian sarri egin direla bapateko bertso saioak zuzeneko musikaz lagunduta eta Lasarte-Oriako Eñaut Elorrieta bezalako bertso batekin egitea “luxu” bat dela. “Aldi berean, oso gertuko hiru pertsona dira, elkar oso ondo konektatzen dute, taldea erraz egin eta, nahi gabe, girotxo bat sortuko dute beraien artean. Eta Eñaut Elorrieta artista da. Duela bi urte bizpahiru kanta eskaini zituen saioan zehar, eta bertsoaldi batzuek musikaz lagundu. Orduan, gero Ken Zazpiren azken diskoari esker ezaguna egin den “Hemen gaude” abestia, lehen aldiz kantatu zuen Arrieskalletan”.

Aipagarria da, bestalde, Ken Zazpi taldeak berak lehen kontzertua Jalgin eman zuela 2000.ean eta Eñautek Irakutre-

zinen kontatu zuenez, “eskenatokian jende gehiago ginen ikusten ari zirenak baino”.

## Jon Maia

Duela bi urte kantatu zuen Maialen Lujanbio txapeldunaren orde Jon Maiak kantatuko du. Antolatzaileek ekarri nahi izan dute zumaiarra. “Jon Maia zen gure lehen hautagaia; udaberriari Maiak ezin zuen guk proposatutako datetan eta beste bertsolari batzuen bila ibili ginen, baina azkenean udazkenean Jon-ek libre zeukan egun batean jarri dugu afaria. Bera zen lehen helburua”.

Aurten saioa atzeratu bada ere, hurrengo urtetan negu amaieran edo udaberri hasieran egiteko asmoa dute antolatzaileek. Lasarte-Oriako badira saio finko batzuek, Udaberriko saio esperimentalak eta Sanpedrotako aipagarrienak eta Arrieskalletako saioak ere bere tokia topatu nahi du garai horretan, “bertso afariak negu partean edo udaberri hasieran gusturago hartzen direlako”.

Lasarte-Oriako bertsozale-tasunaren ueña goraiatu du Iñaki Arrutik, bere ahuldean “ez gaudelako Asteasun edo Hernanin”, egiten diren ahaleginen osagarritasuna nabarmenduz: “Muñoa umeekin ari da, gaztetxoei bertso eskola batzuek ematen hasita gaude, betiko bertso eskolak 20 urtetik gora ditu, zenbait bertso saio antolatzen dira, GRak, udaberrikoak, sanpedrotakoak, Arrieskaletakoak... hainbat elkarteren artean lan egiten da eta ez da marabilla bat, baina herri guztietan ez dago hau”.

Gorka Alvarez Añorga KKE-ko entrenatzailea

# “Futbola bizitza da niretzat”

■ Añorgako nesken taldeak Euskal Kopa irabazi zuen aurreko denboraldian, Gorka Alvarez entrenatzaile zela ■ Ohorezko kadete añorgarrak prestatuko ditu aurten

**la bizitza osoa darama futbolari lotuta Gorka Alvarezek. Gazte-gazterik hasi zen futbolean, zortzi urte besterik ez zituela eta 15 urterekin eman zion baietz bere lehen entrenatzaile postuari. Orain arteko lorpen garrantzitsuena iragan den denboraldian lortu du, Euskal Kopan Athletic handia menperatu ostean.**

Jon ALTUNA IEGITEGI

Burugogortzat du bere burua Gorka Alvarezek, baina hitzaren zentzu onenean. Ez da lehenengoan etsi zalea, kirolzalea eta kirolaria da aldi berean, eta barru barruan sentimendu bat darma: futbola.

## Entrenatzaile izan baino lehen futbolean jokatzeko aritu al zinen?

Bai, urte askoan aritu izan naiz Landaberrin zortzi urterekin hasi nintzenetik. Federatu moduan guztira zortzi urte Ostadarren, Texasen bi eta Lasarte-Orian bat egin ditut.

## Nolatan hasi zinen entrenatzaile lanetan?

Egia esan, ez dakit nola sortu zitzaidan Sasotako eskolarteko benjaminak entrenatzeko lehen aukera hura, baina esperientzia berri bezala hartu nuen. Arteen 15 urte nituen eta gustatu egin zitzaidan. Orduetik, gaurdaino.

## Jarraitzeko asmorik bai?

Hurrengo denboraldirako Añorgako Ohorezko kadeteen taldea hartu dut.

## Nola dago antolatuta nesken futbol liga?

Espainian lau mailatan banatuta dago nesken futbola: Superliga, Nazionala, Euskal Liga eta Territoriala, mailakaketa horretan. Añorgak bi talde dauzka, bat Nazionalen eta bestea Territorialean. Nazionalen taldea entrenatzen aritu naiz, nesken futboleko bigarren mailan esango genuke.

## Liga txukuna egin al duzue?

Hamalau taldez osatutako liga da geurea, liga erregular normal bat. Azken hirurak zuzenean jaisten dira eta lehenengoak soilik lortzen du

igoera-playofferako eskubidea. Gu bosgarren gelditu gara. Espainia iparraldean jokatzeko genuen bereziki.

## Lesioekin arazo ugari izan dituzue...

Egia esan, denboraldia ez genuen oso ondo hasi, jaitzierako postuetatik gertu ibili baikin hasieran, pentsa, hamar-hamabi lesionatu edukitza iritsi gara eta horrek asko mugatu gintuen. Baina jokalariek osatzean, azken bederatzik partiduetatik zazpi garaipen eta berdinketa bat erdietsi genituen.

## Baina denboraldi amaieran jokatzeko den Euskal Kopa irabazi zenuten azkenean. Finalera iristeko bidea nolakoa izan zen?

Euskal Koparako ilusioa geneukan, finalera iritsi gitezkeela ikusi genuen berehala, eta hala izan zen, partidu guztiak irabazi genituen eta.

Hasieran, Arrasate eta Bilboko San Ignaciorekin batera ligaxka bat jokatu genuen, denak denen aurka, eta talde txo horretatik bakarria pasatzen zen finalurrekoetara. Finalurrekoetan, joan-etorriko kanporaketa sistema bidez, finalerako txartela eskuratu genuen Barakaldoren aurka.

## Eta kopa Añorgara ekartzeko lortu zenuten finalean Athletic-i 1-2 irabazita, hori lorpena!

Bai, oso polita izan zen, denera hiru autobus betetzea lortu genuen Añorga, Lasarte-Oria eta inguruko lekuetatik. Gogoan dut jende gehiago geundela hemengoak hangoak baino.

Ligan eurei irabaztea lortu ostean, bagenekien oso zaila zela berriz Kopan Athletic garaitzea. Lehen zatian 1-0 hasi ginen galtzen, errepasso

galanta eman ziguten. 44. minutuan gol psikologikoa sartu genien. Aldageletan leerroak aurreratzea erabaki genuen, eta hamabost bat minutuan aukerak sortu genituen arren, arriskatuera zela ikusi genuen. Azkenean, zorte apur batekin 91. minutuan Miriam Infante herritarrak sartu zuen garaipenaren gola.

## Bost lasarteoritaraz zaudete taldean, ezta?

Bai Iñaki Bobillo laguntzailea (aurten utzi egin du), Laura Gonzalez atezaina, Iraia Iparagirre eta Miriam Infante.

## Giro ona izan duzue taldean?

Bai, bikaina. Egia esan, jokalariek erlazio gehiago egiten dute bigarren entrenatzaileekin, eta nik urte askoan postu hori izan dudanez, oso giro ona sortu zen gure artean.

Baina entrenatzaile kargua hartzean, mugak jarri nituen. Ez baitzaude eskolarteko kirolen jolasten eta jende leihakorra edukita, aprobetxatu egin nahi nuen taldea.

## Presiorik sumatu al duzue?

Ez, kontrakoa. Añorgan nesken futbolariek beti izan du indarra, Superliga eta Erreginaren kopa irabaziak dauzka. Ekipo horrek utzitako herentzia izan da hau.

Presioa zuk jartzen diozu zure buruari. Konfidantza hartzean asko disfrutatu dugu bai entrenatzaileok bai jokalariek. Denboraldi amaieran esan nien Kopa irabaz genezakeela, eta hala izan zen, poza eta harridura, horixe sentituko genuen.

## Nola uler daiteke orduan zure postu aldaketa?

Urtarrilean erabaki nuen utzi egingo nuela. Ez niregatik bakarrik, taldeak aldaketa behar zuela ikusten nuelako. Denbora askoan pertsona bat jokalaririk aurpegi berdinekin lan egitea gogorra egin da, aire berria behar nuen.

Gainera, nazionala izatean, Zaragoza, Logroño, Gasteiz... urruneko lekuetan aritu gara jokatzeko eta gainera, bakoitzak bere historiak dauzka, korrikako entrenamenduak, entrenatzaile titulua atera nahia... neketsua da eta gustatzen zaizulako zaude hor, baina nekagarria ere bada.



“Añorgan nesken futbolariek beti izan du indarra, Superliga eta Erreginaren kopa irabaziak dauzka. Ekipo horren herentzia entrenatu dut”

## Realak min egiten al die Añorga bezalako talde xumei?

Akordio batzuetara iritsi ziren bere garaian eta konbenio antzeko bat daukagu. Goi-mailan Gipuzkoako talde handi batek Superligan goimailan egon behar zuela adostu zen.

Reala behe-behetik hasi eta goraino iritsi zen. Añorgatik hartutako hamalau jokalaririk lehen plantilan izatera iritsi da eta egungo entrenatzailea ere Añorgan ibilitakoa da. Nolabait filiala gara.

## Ilusio eraberrituak dituzue Añorgako kadeteak entrenatzeko?

Proiektu berri bat da, ezezaguna. Talde lehiakor bat eskatu nuen eta Ohorezko kadeteak entrenatzeko aukera eskaini zidaten. Ez dut helburu argirik, baina printzipioz, beheko mamua lehenbailehen

uxatu eta gero etortzen dena ongi etorria izango da.

## Nola ikusten duzue zuren etorkizuna futbolean?

Asko gustatzen zait mundu hau eta momentuz asko gozatzeko dut. Gerta daiteke ordea egunen batean uztea, urtez urte joateko asmoa dut. Jubenilak entrenatzea falta zait, gainontzeko kategoria guztiak entrenatu baititut jada. Entrenatzaile titulua Nazionala ateratzen badut baliteke erregionalerako talde bat entrenatzeko grina izatea.

## Lehen mailan entrenatzeko aukerarik bai?

II. mailako entrenatzaile titulua daukat eta preferenteen mailara arte entrenatu dezaket.

Hurrengo urtean, I. mailako titulua ateratzeko asmoa dut eta horrekin, lehen mailan ere entrenatu dezakezu, halere, gertuagoko helburuak dauzkat.

“Ostadar, Añorga eta Xabi Bobillori eskerrak eman nahi dizkiet, maila ezberdinetako nesken taldeen arduetan nigan apustu egiteagatik”

## FUTBOLA.-

# Mendi-duatloia Zubietan

Luis Mari Urizar izan da garaile gizonetzkoetan eta emakumezkoetan berriz, Amaia Luquin nagusitu da

**Bigarrenez antolatu dute Euskal Herriko mendi duatloien ligarako baliogarria den Zubietako proba. Guztira 142 lagunek eman zuten izena larunbat arratsaldeko lasterketan, baina 124k lortu zuten helmuga-marra zeharkatzea. Eguraldia lagun, asko gozatu zuten lasterkariek Zubietako parajetan barrena antolatutako ibilbide goxoan.**

**M**endi-duatloiak proba gogor eta ikusgarriak izaten dira beti. Lokatza, erorikoak, hotza, ibilbide makurra... Halere, Zubietan edonork osatzeko ibilbidea prestatu zuten antolatzaileek, herritar guztiei parte-hartzeko aukera eskaini asmoz.

Lasterketa hiru bloketan

osaturik egon zen: 4,5km korrika, 15km bizikletaz (Berrigaña inguruan bi itzuli emanda) eta 2,2km lasterka Zubietako kaxkoan zehar, eliza aurreko helmuga marra zeharkatu aurretik.

Jon Erguin faboritoak ezin izan zuen aurreko urteko garaipena errepikatu, Urizar villabonarra gehiago izan zen.

## Sailkapenak:

### Orokorra:

1. Luis Mari Urizar - 1:13:58
2. Jon Erguin - 1:14:37
3. Julen Larruzea - 1:15:42
4. Eneko Gurrutxaga - 1:16:30
5. Josean Garrido - 1:16:39
6. Igor Garcia - 1:19:44

### Herritarak:

1. Andoni Illaramendi - 1:19:57
2. Antton Martinez - 1:30:51
3. Mikel Izagirre - 1:31:24
4. Ramon Altuna - 1:31:45
5. Abel Herrero - 1:36:54
6. Mikel Calvo - 1:37:58
7. Jose Ignacio Elvira - 1:38:45



142 lasterkaririk parte-hartu zuten duatloiean eta Luis Mari Urizar (Trigo Beasain) izan zen garaile.

## HARRI-JASOTZEA.-

### Beñat Telleria bikain Kintopekoen Euskadiko txapelketan

**K**intopekoen Euskadiko Harri-jasotze Txapelketa jokatu zen Zestoako plazan, irailaren 2an eta Beñat Telleria harri-jasotzaile gazteak bigarren postua eskuratu zuen.

Txapelketan 21 urte azpiko lau harri-jasotzaile aritu ziren lehian, Jagoba Otaegi 19 urteko aizarnarra, Joseba Esnaola 18 urteko berrobiarra, Beñat Telleria 16 urteko urnietarra eta Mikel Lopetegi 15 urteko zarauztarra. Jagoba Otaegi izan zen irabazlea.

#### Berdinketa

100 kiloko kubikoarekin eta

100 kiloko zilindro zaharrarekin egin zuten lana, harri bakoitzarekin hiruna minutuko saio bakarra egin behar zuten.

Otaegik eta Telleriak lan ederra egin zuten. Otaegik 100 kiloko zilindro zaharra 30 alditan jaso zuen eta 100 kiloko kubikoa 19 aldiz; Beñatek aldiz 31 jasoaldi egin zituen 100 kiloko zilindro zaharra eta 18 jasoaldi 100 kiloko kubikoarekin.

Beraz, jasoaldi kopuru berdina egin zuten, berrogeita bederatzina.

Baina lehiaketa hasi aurretik Otaegik 9 kilo gutxiago

pisatu zituen, txapela eraman zuen Aizanara.

#### 100 kubikoarekin aukera

Telleriak txapela janzteko aukera izan zuen 100 kiloko kubikoarekin lanean ari zela.

Baina hemeretzigarren jasoaldian, harria bizkarrera jaso eta atzera erori zitzaion. Huts honek txapela balio izan zion.

Bestalde, Telleria anaiak Donostiako Aste Nagusian, Igeldoko Harria txapelketan izan ziren. Urtzi laugarren izan zen; Beñatek, aldiz, zortzigarren postuan amaitu zuen lehia.



Hasi dira Michelingo berdegunea aldatzeko lanak.

## Michelingo zelaia konpondu bitartean...

Hasi dira Michelingo berdeguneko obrak. Zelai zaharra kendu eta berria jarri bitartean ordea, herriko futbol taldeetako neska-mutilek Realaren Zubietako instalazioetan edota usurbilgo Harane futbol zelaian entrenatu beharko dute.

Horrek eragin ditzakeen zailtasunak ikusita, Udalak autobus zerbitzu berezia jarri du obrek iraun bitartean, astelehenetik ostiralera, herritarrek ez dezaten arazorik izan aipatutako bi zelaietara iristeko.

Entrenatu bakarrik ez, partidu ofizialak ere Harane do Zubietan jokatu beharko dituzte bitartean, aste honetan gertatu den bezala.

#### Autobusaren ordutegia

Autobus zerbitzua entrenamendu saioa hasi baino 30 minutu lehenago abiatuko da Michelinetik eta entrenamendua bukatu ondoren, 20

minutu barru egingo du itzuliko bidea.

Ostadarreko Euskal ligako kadeteek astelehena eta ostegunetan 16:30etan eta asteazkena eta ostiraletan 15:15etan hartu beharko dute autobusa. Infantil txikiak astelehenetan 16:30etan eta ostegunetan 18:00etan. 1. jubenilek astelehena 20:00etan eta asteazkena eta osteguna 19:30etan. Neskak astelehena 20:00etan eta asteazkena 19:30etan. Ohorezko infantilek asteartea eta asteazkena 16:30tan. Ohorezko erregionalek asteartea, asteazkena eta ostirala 19:30etan. 1. kadeteek asteazkena eta ostirala 15:15etan. Azkenik, 1. erregionalek ostegun eta ostiraletan 19:30etan.

Taxasi dagokionez, kadeteek asteartea 16:30etan eta osteguna 19:00etan hartuko dute autobusa. Erregionalek berriz, asteartea eta ostegunetan 19:30etan.

## ARRANTZA.-



Eneko Ortiz eta Koro Fernandez harrapatutako arrainekin.

BURUNTZ AZPI ELKARTEA

### Fernandez eta Ortiz primeran itsas arrantzan

Buruntz Azpi elkarteak irailaren 16an igandean itsas arrantza irteera egin zuen Oriora. Eguraldia lagun, bazkide eta herritar ugari bildu ziren Oria ibaiko ahoan.

Elkarteko lagunek jakitera eman digutenez, helduen mailan Koro Fernandez izan zen harrapaketa gehien egin zituena eta gazteetan, berriz, Eneko Ortiz izan zen.

Jarraian, antolatzaileek eskainitako datuen arabera, 50 lagunek paella ederra dastatu zuten.

— Agenda —

Iraila osoa, Jalgi kafe-antzokia



Amalurra eta bizitza

Jon Galdos artista irundarraren Amalurra erakusketa ikusgai dago. Olio margoz mihise gainean edo egurrean egindako hainbat lan aurkezten ditu. Hauetan jaiotza, eguzkia, bizia, ilargia, heriotza eta Amalurra agertzen ditu artistak. Gainera, lagungarri gisa, olerki eta testuak atxiki dizkio margoei.

rientziei buruzko mahai ingurua izango da ezker abertzaleak antolatuta.  
**Astelehena 25, 22:00etan**  
 Irailaren 26ko greba dela eta, Naomi Kleinen "La toma" filmaren emanaldia ezker abertzaleak antolatuta.

Urnieta

Jaiak

ERDIALDEA

Osteguna 27-Igandea 30

Urniatarrek Sanmielak ospatuko dituzte.

JAKUTEGI PLAZA

Igandea 30, 16:00etan

Sanmiel jaien barruan, bertsolariaren emanaldia: Uxue Alberdi, Julio Soto, Andoni Otamendi, Alaia Martin. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Inñistora elkar-tek antolatuta.

Usurbil

Antzerkia

SUTEGI KULTUR ETXEA

Ostirala 28, 20:15ean

IV. Topa Eszenikaren barruan, "Ispilua" antzezlan eskainiko du Aldatzen Laguntzen Antzerki Taldeak.

HAINBAT KOKALEKU

Larunbata 29, egun osoa

IV. Topa Eszenika ospatuko da. Idazketa eta clown tailerrak. Emanaldiak ere izango dira: "Orsai" kale antzezlan eta "Gure bide galduak" antzezlan. Tailerretan izena emateko: txerriki@gmail.com. Txerriki Antzerki Taldeak antolatuta.

Lasarte-Oria

Azoka

OKENDO PLAZA

Larunbata 29-Igandea 30

Beste urte batez, herriko Aterpea elkarteak Udalaren laguntzaz V. Stock eta Saldoen Azoka antolatuko du.

tan" bertso afaria antolatu dute Arrieskalleta elkarteak, Ttakun kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako Bertso eskolak. Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak eta Eñaut Elorrieta musikaria izango dira honetan. Afariko tiketak Jalgi tabernan daude salgai, 25 eurotan.

Bestelakoa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 24, 13:00etan

San Marko Mankomunitateak indarrean jarriko duen zerbitzu berriari buruzko bilera informatzaileak antola-

tu ditu. Zerbitzuak industria- eta enpresa poligonoetan nahiz parke teknologikoetan hondakinak zatiki gehiagotan biltzea du xedea.

OKENDO PLAZA

Astelehena 24, 18:00etan

Irailaren 26ko greba dela eta, hezkuntza murrizketak eta herriko egoera sozioekonomikoari buruzko mahai ingurua izango da ezker abertzaleak antolatuta.

Astelehena 25, 18:00etan

Irailaren 26ko greba dela eta, inguruko enpresen egoera eta herritarren espe-

Bertsolaritza

ARRIESKALLETA ELKARTEA

Ostirala 5, 21:00etan

"Hitzarekin jolasean musikaren kolore-

— Herritarren txokoa —

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da irailaren 24an, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Odola ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan irailaren 24an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, irailaren 28an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaltekearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Errioxara egun pasa

1962an jaiotako lasarteoiarrentzat Errioxara egun pasa antolatu dute, azaroaren 10erako, larunbata.

Parte hartu nahi dutenek, edo informazio gehiago jasotzeko, iraila-

ren 28a baino lehen jarri harremanetan antolatzaileekin: Beatriz, 646 274 377 edo Rexu 659 950 363.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, lau betaurreko graduatuak, eguzkitako betaurrekoak, hiru-mugikor, txandaleko jaka bat eta txirrinda bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Alboka abesbatza martxan

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, 2012-2013 ikasturteari hasiera eman diola.

Era berean, abesteko interesa duen orori Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalera, astelehena edo ostegunetan 20:00etatik 21:00etara, hurbiltzeko gonbita egiten die.

— Haurren txokoa —

Aurkitu Euskal Herriko 10 intsekturen izenak

C	E	C	A	I	B	Y	X	S	S	F	J	D	R	M
L	R	V	J	T	A	S	A	S	Y	P	Q	E	W	V
V	T	C	H	I	E	R	L	E	A	A	W	K	V	B
D	U	N	A	P	G	L	S	Z	M	Y	M	P	I	A
N	I	P	R	A	A	I	E	C	D	M	I	N	R	A
T	C	P	N	I	M	S	S	M	T	R	X	R	I	X
V	M	C	Y	R	R	T	J	N	I	G	A	E	P	H
I	P	Z	Z	R	A	O	Q	X	G	X	L	Y	R	S
H	A	S	C	U	I	R	J	N	T	M	T	J	I	O
B	R	H	U	N	M	R	P	I	V	P	Z	B	R	X
Q	J	C	Q	I	R	A	X	U	C	K	I	R	L	Z
R	A	I	G	R	A	T	R	U	P	I	D	P	Q	J
N	I	A	M	A	N	T	I	S	A	D	C	B	F	Y
L	V	M	A	N	T	T	I	N	S	A	L	T	O	A
C	L	S	B	E	L	T	K	I	L	K	E	R	R	A

- ARMIARMA
- ERLEA
- INURRIA
- IPURTARGIA
- KILKERRA
- LISTORRA
- MANTISA
- MANTINSALTOF
- TXIMELETA
- TXITXARRA

euskal.info

Bazenekien...

...Madagaskarreko labe zomorro mota bat arratoi baten tamainaraino hazi daiteke. Haserretzen direnean borrokan hasten dira. Maskota bat bezala edukitzeko denda berezietan lortzen dira.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Landaberri ikastolako 3. zikloko ikasleak

# Erdi Aroko azokan artisauak, bufoiak, damak...

XV. mendean girotutako azokan, gutxiak, jakiak eta eskulanak saltzen aritu dira

Jende andra ibili da aurrera eta atzera ostiraletik igandera bitarte iraun duen Erdi Aroko azokan. Okendo plaza eta inguruek 600 bat urte egin dute atzera eta ez da garaiko ikuskizun, musika, antzerki eta pertsonaiarik falta izan. Gainera, 50 postutan banatutako artisauak eskuz egindako eskulan eta gutxiak herritarrei saldu ahal izan dizkitez. Aurtengoan ere, Bartzelonako "Pegasus Mercados Temáticos" enpresak antolatutako azoka, Udaletxeko kultura sailarekin batera.

## TXINTXARRI

**B**at baino gehiago harrituko zen seguru aski ostiral arratsaldean Okendo plaza eta Antonio Mercer plaza horren apainduta ikusita. Izan ere, kaleak Erdi Aroko oihal, egur eta dendaz jantzi zituen "Pegasus Mercados Temáticos" enpresa kataluniarrak.

Erdi Aroko giro horren barnean, herriko gaztetxoentzako kale-antzerkiak, malabareak, bufoiak etab. izan ziren.

Helduenek berriez, artisau postuetan zeuden gauzei begira aritzeko aukera izan zuten.

### 50 artisau postu

Okendo inguruetan egon ziren artisau askok saltzeko

gauzak etxetik eginda ekarzteaz gain, herritarren aurrean zuzenean euren produktuak landu nahi izan zituzten, euren lan-prozesua lasarteoriarrei erakutsi asmoz.

Besteak beste, intsensua, koloniak, gaztak, pastelak, txistorra, bitxiak, zilarrezko gutxiak, larruz egindako jantziak... saldu zituzten igandera bitartean.

Aurreko urtean ez bezala, aurtengoan ez da artisau lasarteoriatarrak egon Erdi Aroko azokan.

### Jendearen parte-hartzea

Herritarrek gustu handiz eta kopuru altuan bisitatu zuten azoka eta gainera, aktiboki parte-hartu zuten antolatutako ekintza desberdinetan, antzerki eta halakoetan.



Okendo plazak Erdi Aroko garaietara egin zuen jauzia: bufoiak, Erdi Aroko dama ederrak, nekazariak, saltzaile ibiltariak...

euskararen **8.** maratoia  
bihotzetik plazara

**Zatoz Benedika ezagutzera!!**

**27 egun**  
falta dira

[www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com)

**Lasarte-Oria 2012ko urriaren 20a eta 21a**

Ttakun Lasarte-Oria Ustea